

Udako solstizioa, San Juan bezpera

Gure herriko jai nagusiak argitasun haundieneko egunetan ditugu. Udako solstizio inguruko egunak dira; hain zuzen ere San Juan Bataiatzailearen jaiarekin identifikatuta heltzen zaizkigunak.

Herriaren izpiritua adierazten da era desberdinak direla medio eta bereziko izakera profano eta erlijiosoko festen bitartez; horietako batzu aintzina-koak dira eta jatorriz zeukaten edukia eta esannahia –gutxi edo asko aldaturik daukate gaur egun.

Udako solstizioaren inguruan ikusten diren errito asko, bizirik dirauten eta agerpen erlijioso modura heltzen zaizkigun adierazpen naturistak dira. Inoiz aipatu dut, alegia, gizonarengandik eta dagoen zerbaiten aitortpena daramaten superstizio, magia eta mitoaren pizgarri dela udako solstizioa; guzti hori aurrera eramaten delarik, bereziki, suaren, uraren –gurgarri paganoak– eta landare munduaren –zuhaitzaren gurtza– partaidetzarekin.

Gauza baten irudia eta berak adierazten duena berdin badira, suak elkar-tzen gaitu eguzkiaren botere biziemailearekin, ahaztu gabe bere garbikuntz berezkotasuna.

Y en cuanto él deje mi casa,
Antes de tornar yo a ella,
Purificaré con fuego
sus paredes y sus puertas

(Duque de Rivas: *Romances*).

Garbikuntz kualitate hau agertzen da, ekainaren 23ko gauean pizten den suaren gainetik jauzia egin aurretik dauden adore, irrika eta eskari egoeretan; jokaera bera ematen delarik elkarrengandik urrun dauden toki desberdinetan. Berau eskari bat da; hain zuzen, San Juan bezperako azken orduetan suaren inguruan egiten dena eta garrantzi haundirik ez daukaten aldaketa batzurekin, sakonean kointziditzen duena.

San Joan, San Joan berde, artuak eta garixak gorde, lapurrak eta sorgiñak erre. Biba San Joan berde! (Elgeta).

Sarritan ekaineko su hau bidegurutzetan –esannahi desberdineko jokatibidetan agertzen dena– eta inguruetakoko tokirik nabarmenetan piztu izan da izpiritu gaizkileak uxatzeko; kontutan izan behar delarik bestaldi su honen kea azaleko gaitzen kontrakoa dela.

Kaleko munduak ere ez du bazteztzen suaren ospakizun hau. Tolosari dagokionez, hemeritzigarren mendeko egitarau batetan hurrengo hauxe adierazten da: Iluntzeko 8etan Santuaren irudi aurrean suak piztuko dira.

Kontutan izango dugu era berean, ekainaren 23ko gauean sorgin-eragina nabaria dela; horiek uxatzeko edo suntsitzeko bitarteko hauek erabiltzen direlarik: sua, kale eta soronetatik barrena zintzarria joz ibiltzea eta parroki elizatik ezkilak jotzea.

Solstizio eta ekinozioetako jaiak Elizak kristautu zituen. San Agustinek hauxe zioen:

Guk ospatzen dugu egun hau, ez, sinesgabeek egiten duten bezala, Eguzkiagatik, Eguzkia egin duenagatik baizik.

Ekainaren 23ko gaua laburra da eta ihardunbide magikoaz beteta dago; berehala ematen dio agurra San Juan goizari. Orain ur guztiak bedeinkatuak dira eta eguzkia dantzan dabilela ikusten dugu

Izar eder bat
Ateratzen da
Urtean egun batean.
Urtean egun batean
Eta ura san Joan goizean.



Udako Solstizioa. San Juan bezpera = Solsticio de verano, víspera de San Juan Bautista / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Tolosa San Juan Jaiak 1988*. – Tolosa : Tolosako Udala, 1988. – [12] p. : il. ; 21 cm. – P. [10-12]. – OC. T. 4, p. 419-421